

# *ttipi-ttapa*

1993.eko Urtarrilak 28

102. zenbakia

dohain banatzen da



**HAMAR URTEOTAN  
700 LANPOSTU GALDU DIRA**

# APEZTEGIA

BURDINDEGI BERRIA



Elizagibela 1, Tfnoa: 450994

DONEZTEBE

# MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

# SOZIO-LINGUISTIKA IKASTAROA

NON?  
BORTZIRIAK  
BAZTAN  
ETA  
MALERREKAN



NOIZ?  
OTSAKA -  
MARTXOA  
BITARTEAN

**ANTOLATZAILEAK:** Bortziriak, Baztan  
eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak

**LAGUNTZAILEA:** Nafarroako Gobernua



MATRIKULATZEKO EPEA:

*Otsailaren 1etik 19ra*

IZEN EMATEKO TOKIAK:

*Baztanen: 580006 tfnoan.*

*Bortzirieta: 634125 tfnoan.*

*Malerrekan: 450454 tfnoan.*

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak

# non - zer

- 
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/24 HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 25 KIROLAK:** Berako IV. Mendi Bizikleta Bilkura hilaren 31an burutuko da
- 
- 26 ERREPORTAIA:** 700 lanpostutik goiti galdu dira hamar urteotan eskualdeko lau lantegi haundienetan.  
Patxi Larretxea
- 
- 28 ELKARRIZKETA:** Xabier Dutey-Harisppe, «famosoen» medikuak Donezteben jarria du kontsulta gaur egun.  
Txema Aldabe
- 
- 30 MERKATU TTIKIA**
- 

## *ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, David Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)  
*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako errenen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa/Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe .....450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248/510573

**KONTSULTAK**

Arizkun .....453039

Gartzain .....580451

Oronotz-Mugaire .....592024

Ituren .....450183

Sunbilla .....450283

Goizueta .....514067

Igantzi .....637755

Arantza .....634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun .....630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea .....614600

Nafarroako ospitalea .....102100

SSko urgentzi zerbitzua .....246750

Virgen del Camino

erresidentzia .....109400

Gurutze Gorria .....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz .....450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire .....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra .....630279

Baztanesa .....580129

Leitzarar .....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo .....580730

Lesaka .....637154

Bera .....630261

**ABERIAK:**

Iberduero .....450335/450336

**W Botikak**

► **Urtarrilaren 30-31an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Otsailaren 6-7an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Elizalde (Elizondo).

**W Gaupasak****► SUNBILLA**

Urtarrilaren 30ean, gauerdiko 12etan, Urritzibil baserri errearen alde gaupasa frontoian *Basajaun* taldearekin.

**W Deialdiak**

► **LESAKA**, otsailaren 5ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, otsailaren 5ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, otsailaren 9an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, otsailaren 10ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, otsailaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

**W Kontzertuak****► LESAKA**

Urtarrilaren 30ean. Lesakako frontoian 9,30etatik aintzinera EH SUKARRA, MCD, eta Patagonia Taldeekin rock kontzertua.

**► BERA**

Otsailaren 6an. Toki Ona Institutoaren 25. urtemugako ekitaldien barnean, 'TAPIA eta LETURIA' ren aktuzioa arratsaldeko 6etan Altzateko frontoian.

Otsailaren 4ean Lanbide eskolan, arratsaldeko 3etan, *Auskalo* eta *Zup* taldeak.

**W Bota bertsoa****Biotz UNANUA**

Baztango Bertso Eskolakoa

**Gaia:** Orakunde Eguna**Neurria:** Zortziko haundia

Beti bezala otsailan dugu egun haundi honen data besta hau hemen ospatzen da Baztango ohitura baita ezpatarekin al den bezala ta begiak estalita al dunak behintzat eramaten du urtero protagonista.

Egun horretan parte hartzeko ez baita ezer eskatzen aukera ederra duzue eta ez utzi hau eskapatzen hamazazpia ortzegun baita saia zaitezte etortzen bertso hau irakurrita gero ea zaten animatzen.



# AGENDA

## Zinema

### ► LEITZA

Urtarrilaren 29an eta 31an 8etan "Tomates verdes fritos", 31an 5etan "Estos locos bomberos". Otsailaren 5ean eta 7an 8etan "Jamón jamón", 7an 5etan, "Eduardo manostijeras".

### ► DONEZTEBE

Urtarrilaren 30-31an "El último boy scout". Otsailaren 6-7an "El principe de las maras".

## Gastronomia

### AZALOREA BEXAMELAREKIN

#### Osagaiak 4 lagunendako:

Azalore bat, tipul erdi bat, 3 baratxuri hortz, 3 urdaiazpiko xerra, 3 goilare irin, litro bat esne, olio, gatza, piperbeltza, perrexila eta ogi rallatua..

Eltze batean azalorea gatzaz pixka batekin egosten jarri, egostean ura ongi



Margari Etxenik emana  
ZUGARRAMURDI

kendu, puskatu eta kaxula batean jarri.

### Bexamela:

Kazo batean olio pixka batean, tipula eta baratxuria ongi puskatua jarri, gorritzen direlarik urdaiazpikoa eta perrexila puskatua bota, ondoren irina eta esnea piperbeltza eta gatzarekin, ongi nahasi eta masa loditzean sutik kendu. Azkeneko bexamela azalorearen gainetik bota, ogi rallatuz estali eta labean sartu gorritu arte.

## Iñauteriak

### ► SUNBILLA

Urtarrilaren 29,30 eta 31an (karroza desfilea).

### ► ITUREN

Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra. Otsailaren 6ean, kontuen edo zaharren eguna.

### ► ZUBIETA

Urtarrilaren 31 eta otsailaren 1 eta 2an.

## Baserriko feria

### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.450 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 143 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

### ► BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal Extra.....540  
1.koa.....520  
2.koa.....490

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal Extra.....550  
1.koa.....525  
2.koa.....500  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pzta /Kg. Kanal.

### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 12.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.  
**Mestizoak**: urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



**Iñigo Iguual**  
Aurtizko Ostatukoa

- ▶ **Zubieta ala Iturengo inauterik eza-gutzen dituzu?** Ez, telebistaz bakarrik.
- ▶ **Nolakoak espero dituzu?** Herrikoiak, zaratatsuak eta jatorrak.
- ▶ **Zubitakoak ala Itungoak?** Aurtizkoak.
- ▶ **Juergak, zuk egiteko ala bertzeak egiteko?** Denak elkarrekin egiteko.
- ▶ **Eguneroko klientela ala noizbehinkakoa?** Biak, baina bertakoekin gelditzen naiz.
- ▶ **Lana, eguerdian ala gauean?** Eguerdian.
- ▶ **Negua ala uda?** Biak, oporretarako uda.
- ▶ **Irakurtzea ala ala telebista ikustea?** Paseatzea eta irakurtzea.
- ▶ **Gipuzkoano sobera etortzen ari dira?** Bai, han ez dagoen lasaitasunaren bila.
- ▶ **Hiria ala herria?** Herria.
- ▶ **Lagun berriak egiteko problemarik?** Ez, poliki-poliki egin ditut.

▶ **Backstreets of desire**  
Willy De Ville  
1992

Beti nabaritsuak izan dire Willy de Villen disken azalak. Mutur zorrotz, bigote fin, urre brilloa belarri, hortz, eskutur edo zapatetan. Latino makar itxura edo ijito gabatxo finen itxura elegantea.

'Cabretta' lehen diska 1977an kaleratu zuen New York-eko momentu beroan, moderno kutsua baino Spanish Harlem kutsua gehiago zeukan eta soul latza eta arrunta zuen diska honek oinarri.

Ondotik bertze bi diska egin

Datu aipagarri bezala, Willy de Villen aitona irlandarra zen eta amona berriz euskalduna.



zituen ez hagitz onak. Garai hartan sartu zen kokaina eta heroina munduan.

Urte hoietan musika talde on eta hobe ugari b a z e g o e n . Willyren musika, hiru edo laugarren lerroan egoten zen. Gure lurraldean ez eza-guna, alegia.


Frantziara bizitzera eta ber-

pizteratorri zen, bere musikaren bigarren etapa indartzera. Bertze bi diska grabatu zituen 'Chat bleu' eta 'Coup de Grace', gabatxo kutsu ahulekoak eta motelak, bere karreraren aunitz lagundu etzietenak. Frantzia bere musika posibilitateak agortuak ikusi zituenean Ipar

Amerikara itzuli zen Nueva Orleans-era hain zuzen. Zekienarekin eta musika modu aunitz dituen hiri hortan berriro indartu eta azken bi urteotan bi diska eskeintzen dizkigu, batez ere azken lana, *Backstreets of desire* 1992.

MARIANO

☛ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!



**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55  
**BERA**

**OKANE**

**Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

**ZIZKA OSTATUA**

---

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - **BERA**

eskulan tailerra



**trebeki**

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 **IRUN**

Ikastaro irekiak urte guzian:

- ☛ Makrame eta tridimensional
- ☛ Saskigintza
- ☛ Telar eta saskigintza
- ☛ Eskaiola margotu
- ☛ "miga de pan"...

**Otsailan hasten gara**



Bortzirietako DYAk 116 pertsona atenditu zituen iaz, hauetatik 84 Bortzirietakoak. Lesakako delaegazioan 35 urgentzia kura egin ziren eta ambulantziak 99 pertsona garraiatu zituen eritetxeetara.



Iñauterien garaian sartu gera buru-belarri. Asteotan hainbat fama hartu duten Ituren eta Zubietakoak ospatuko dira, baita Sunbillaakoak ere, urtetik urtera giro hobearrekin eta karroza gehiagorekin ZALDUA Arg.

## Balnearioetara joateko aukera

*Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak eskeintzen dio jubilatutako, alargun, ezindutako eta pentsionistei*



Bortzirietako Gizarte Zerbitzuko teknikariak jakinerazi duenez, aurtengo balnearioetara joateko aukera izanen dute jubilatutako, ezindutako, alargun eta pentsionistek. Jende honen eritasun erreumatologiko, arnaseko edo errespiratorioak, digestiboak, etab... sendatzeko edo zaintzeko beharra baldin badute, plaza eskaduzakete. Lehen txandan joateko aukera bukatu zaie

pertsona hauei, izan ere urtarrilaren 25a baino lehen eman behar baitzen izena.

Bigarren txandarako, berriz, maiatzaren 31a baino lehen eman behar da izena.

Informazioa zabaldu nahi izanez gero edo apuntatzeko, Bortzirietako Gizarte laguntzaileak Etxalarren duen bulegora agertu edo 635036 telefonora deitu.

### INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## LESAKAKO ALKATE JAUNARI ERANTZUNA:

1993ko urtarrilaren 3an eguberrietako pinuaren mozketa eta zakarrontzi baten erreketak zirela eta Etxegarairen idazki bat agertu zen, non guttiena kritikatzeko direnak gertakizunak berak dira, ia idazki guztia, beretzako gustoko ez diren talde edo mugimenduen gertakizunetan nahasteko, mehatxatze edo kriminalizatze erabiltzen du.

Etxegarai jauna, holako salaketa la-

rriak egiten direnean argi erran behar da, zeinek burutu duen ekintza. Bertzela, salatzeagatik salatzea fazistak egiten dutena egitea da.

Terroristak eta fazistak direla erraten duzu aipatutako ekintzak. Zinez terrorismoaren aurka bazaude ia noiz hasten zaren salatzen indar errepresioek egiten dituzten kontrolak, torturak,...

Demokrazia hitz egiten duzu. Aunitz aldiz aurkeztu ditugu idazkiak eskakizun ezberdinak

eginez, zenbait bileratara joan gara eta beti mesprezua eta ezetza jaso dugu zuregandik. Hori da zure demokrazia.

Herria garbi edukitzea nahi duzu. Laminategietatik ateratzen diren isurkinen eta kontaminazioaren aurka egin beharko zenuke, ziur gaude pinuaren asuntuarekin jarri duzun indarraren erdia jarri bazenu, bertze egoera batean egonen ginatekela.

Gizartearen pakea hausteari buruz ari zara. Lehenik erres-

petatu pertsona bakoitza eta bizikidetasun ona nahi badugu langabezia desageratzeko borrokatu behar da, baserritarrak duintasun minimo batekin bizitzen segitzeko ahaleginak egin behar dira. Asiloko langileak zirenekin izan duzun jokaerari kasketaldia eta intolerantzia dario, jokabide hoiekin dute batere laguntzen herikideen arteko bizitza paketsura. Eta gainera, argitu al diozu herriari (zuen legeak ere ez baitizue arrazoirik eman)

zenbat diru suposatzen duen zuen kasketaldiak? (...). Etxegarai, sorginen ehiza bukatu zen, zuri kezkatzen dizuna, idazkian erraten duzu, zera da, badaudela pertsonak edo taldeak gauzak egiten dituztenak eta aurpegia emanez gainera, hori jasan ezina da zure autoritarismoarentzako.



Herri Asanblada

## ARRAZOI BAT EUSKALTEGIAN MATRIKULATZEKO

### Euskalduna = Euskara duena

*Hau ezabatuko duen  
arrazoirik ez dago*

**Matrikulatzeko epea  
urtarrilaren 29a arte**



BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA IKA 



### Ekitaldi ugari Toki Ona Institutoaren 25. urtemugan

Otsailaren 4, 5 eta 6an burutuko dira

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Hogeitabortz urte bete dira Toki Ona Institutoa sortu zenetik eta zuzendaria den Jose M<sup>a</sup> Irazokik dioenez, "lehen urtean 36 ikasle aritu baziren ere, geroztik, 25 urteotan alegia, 1.500 ikasletik gora pasatu dira bertatik". Gaur egun ordea, 370 ikaslek ikasten dute bertan modulo ezberdinetan eta batxilergoan.

Hiru egun ekitaldiz josiak Erakusketak, pilota eta futbol partiduak, bertsoak, herri kirolak, musika kontzertuak, bazkariak... denetarik egonen da hiru egunotan ia-ia ordu guziaz betetzeko. Ortzeguna mundu guzientzat irekia, ortzitala batez ere eskolakoentzat begira eta larunbatean aldiz, ikastetxearekin zer ikusia duten eta izan duten guzietan eskeinia.



Jose Mari Irazoki, Toki Ona Institutoko zuzendaria.

### Ipuin Lehiaketetako saridunak

Urtarrilaren 23an burutu zen sari banaketan eza-gutu ziren VI. Gure Txokoa eta Haur Ipuinen XXI. Bera sariketaren irabazleak. Lehenari dagokionez, Jon Abril Olaetxeak aipamen berezia jaso zuen 'At, nitaz at' lanarekin. Haur ipuinei dagokionez, 9 urte artekoetan Beñat Taberna Te-

lletxeak eskuratu du lehen saria 'Elefantea eta espaziuntzia' rekin. 10-11 urte artekoetan M<sup>a</sup> Jesus Perugorriak 'Boligrafo batean bihurtu naiz' lanarekin. 12-16 urte artekoetan azkenik, lehen saria Iñaki Irazoki Gelbenzuren 'Ipotxen munduan' lanarentzat.

### ttiipi-flash

Dantza ikastaroak larunbatero 6 urtetatik gorakoentzat Gure Txokoko antolaturik.

Udal-langileak (Administrari laguntzailea eta diruzaina bereziki) euskara ikastaroan dauden orduetan ordezkatzeko, Arantxa Iriarte Loiarde kontratatzea erabaki du Udalbatzak ahobatez.

Suhiltzaile boluntarioen ekipamendua hornitzeko 2 milioi pezetakoko laguntza luzatu du Nafarroako Gobernuak. Hortaz gainera, bertze 500.000 pzta. ere luzatu ditu suhiltzaile hauek aseguratuzeko.

Bi beratar ospetsuren 100. urtemuga ospatuko da udaberri honetan. Batetik Isidoro Fagoagarena eta bertetik Joakin Aldaberena. Biak ere, hainbat musika eta liburu lanen egileak izanak dira.

**LAINO**  
%30eko DESKUENTOAK  
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

**BOTXO ostatua**  
Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa, BERA

**BORTZIRI**  
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

**GOZATEGI - JARDUNE**  
Itzea 3, 630786 - BERA

IRAGARKIHAU 5.300 ETXETAN SARTUDA  
ZUREA ERE SARTUKODA  
PUBLIZITATERAKO  
ttiipi-Itapa ERABILIZGERO

\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa  
\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu  
Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91



LESAKA

116 pertsona lagundu zituen iaz Bortzirietako DYAK

Hauetatik 84 Bortzirietako bizilagunak ziren eta 99 anbulantzian eraman zituzten

AITOR AROZENA

Bortzirietako DYAK 116 pertsoneri laguntza eskeini zion 1992. urtean, berriki kaleratu duen balantzearen arabera.

Kasu hauetatik 62 eritasun larriagatik izan ziren, 29 trafiko istripuagatik eta gainotzekoak bertze arrazoiengatik. Herrika banatuta, Bortzirietako 84 pertsona atendituetatik 3 Arantzakoak ziren, 32 Berakoak, 10 Etxalarkoak, 7 Igantzikoak eta 32 Lesakakoak.

116 pertsona horietatik, 99 anbulantzian eraman behar izan zituzten, gehienak (79) Irungo Bidasoako ospitalera. Erreskate ibilgailua eta anbulantzia hainbat ikuskizun berezitan egon ziren (zezenak, kirolak...).

Azkenik, Lesakako delegazioan 35 urgentzi kura egin ziren iaz.



Trikitixa eta krixkitin ikastaroak aintzineran doazi Arrano elkartearen

AITOR

Herri Asanblada Manuel Zamorano intsumisoaren epaiketaren aurka

Herri Asanbladak bere elkartasuna eta laguntza eskeini dio Manuel Zamorano intsumisoari, soldaduska egin nahi ez izateagatik epaitua izanen baita datorren maiatzaren 4ean. Eraberean, Herriko Etxeari elkartasuna adieraztea eta epaiketa ez

egitea exijitzea eskatu diote. Epaiketa eginez gero, udala autoinkulpatzea eskatzen da. Azkenik, maiatzaren 1ean Zamoranoren alde egin nahi den gaupasa baterako kioskoa uztea eta 250.000 pztako laguntza ematea eskatu diote udalbatzari.

ttipi-flash

□ **Latsaga** peñak rock kontzertua antolatu du larunbat honetarako (hilarren 30a). Gaueko 9,30etatik aintzinerara, MCD, EH Sukarra eta Patagonia taldeak arituko dira frontoian.

□ **Plaza Zaharreko** zenbait bizilagunek kexa azaldu diote Udalari besta egunetako musika saioak sortzen duten soinua dela eta. Idatzian neurriak hartzea eskatzen zuten eta Udala dagoeneko bildu da Ostatu elkar-tearekin.

□ **Industri olio** erabiliak "alcantarilla" edo estolderiatik behiti ez botatzeko bandoa plazaratu du Udalak, hauek depuradoran sortzen dituzten arazoak direla eta. Diputazioako Ingurugiro saileko idatzia ere jaso du Udalak.

LORA DENDA  
  
**TXIRULA**  
 Bitiria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bitiria, Tfnoa: 62 75 42  
**LESAKA**

**IRUBIDE**  
**OSTATUA**  
**ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**XATURETXEA**  
**FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**ONIN**  
**Agentzia**

Albistur 53  
 Tfnoa: 637359  
**LESAKA**

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

**EROSLE**  
**LESAKA**

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

**Frexkuena**  
**zugandik**  
**hurbilago**

Bitiria 67 - Tfnoa:637264

## Plantazio berriak eginen dira aurten Zentinela aldean

Bertzeak bertze, 19.000 bago eta 9.000 haritz sartuko dira

PELLO APEZETXEA

Gehiena Nafarroako Gobernuaren kontura izanen da, Zentinela mendian sartuko diren 19.000 bago eta 9.000 haritzen balioa eta lana; hogeitazortzi hektareatan banatuko dira, 22.978.000 pztaraino ailegatuko den presupostua. Horrez gain, Udalak bertze 700.000 pezeta kostakodun plantazioa eginen du.

### Arbola salmentak

Ia lau mila pinu insignis markatu ditu Udalak, Mugerdi alde eta Unani eremuetan, hemezortzi milioi pezetatako balioa dutenak. Salmentako orduan ikusi beharko balio hori mantentzen den.



Argazkiak: PELLO

Goiko argazkian, Larraburuako Mus Txapelketaren irabazleak.

Ezkerraldean berriz, Xorroxin Irratiaren laguntzarekin egindako irratsaio bat emititzen ageri dira Landagain eskolako gaztetxoak.

### Latsabea berriztatuko dute

Urtetan autobus geltokiaren itzala izan eta ia erorikoaren itxura duen etxea moldatzea pentsatu dute. Etxe bat erortzearekin, urte aunitzetako histo-

riaren testigua joaten zaigu, herriaren zerbait hil denaren iduria utziz. Horregatik pozgarria da utzirik egon den etxea egokitu nahi dutela jakitea.

□ Euskara Mankomunitateak denda, ostatu eta bertze leku publiko nahiz pribatuetakoko kanpoko **letre-roak euskaraz** parartzeko eskatuz papera igorriko die. Hori bete ahal izateko laguntza ere eskeintzen da.

# XABIER Ileapaindegia

Egunero Irekia

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA

*Deñe*

LENTZERIA

MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

# KOXXKONTA



Sagardotegia

Erretegia

Ezkontza,  
bataio, bileratarako  
leku egokia  
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

# ARRANO



# OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**



Ezkontzetako  
erreportaiak  
argazkiak eta  
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO

Eta orain, zure  
koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ  
ERREBELATUAK**  
ditugu


IGANTZI

**Biltoki elkarteak otsailaren 6an egingen du asanblada**

Hasiak dira lanak, bertzalde, Baratzondoko zelaian

OSKAR TXOPERENA

Berrehun bazkide inguru ditu Biltoki elkarteak eta joatea derrigorrezkoa denez, guziak daude deituak otsailaren 6an burutuko den urteko asanblada nagusian parte hartzeko. Gaiak berriz, ia ia urterokoak: kontuen berri ematea, urteko aktibitateei gainbegiratua, altak eta bajak, juntaren aldaketa –aurten lehendakariordea, idazkaria eta zenbait bokal aldatuko dira–, eta hama-bortz egunetik egiten den ostatuko errekuentoetan faltatzen den diruaz ere. Hemendik ordura arte, bertze gairen bat ere sortu daiteke oraindik.



Hasiak dira teknikoak Baratzondoko terrenoan lehendabiziko markak paratzen. Hauxe da egin nahi denaren proiektua

**Istripu larria bizikletaz**

Mendi bizikletako bertze taldekideekin batera hilbeltzaren 17an Lesakako San Antonera zihoanean

istripu larria izan zuen Juantxo Sein Garberekoak. Agiña inguruan maldan behera jeisten ari zirela erori eta belauneko ligamentoak puskatu zituen,

eskumuturrean ere min hartuaz. Talde handia dabil Igantzin kirol hau egiten eta bertze kirol gehienak bezala baditu bere arriskuak. Bortz edo sei hilabetetako egonaldia egin beharko du Juantxok bizi-modu normalera bueltatzeko. Animo.

**Argi indarreko** posteak bazterten aritu dira aintzin horretan Bentako zubian. Badirudi lanak abudo hasiko direla.

**Eguberrietako** zairen zenbaki saridunak oraindik ez dira agertu. Badazpada ere oraindik etxeko zokoan baldin badituzue, hauexek dira zenbakiak: koralakoa, 3.570 eta bestatakoa 3.270.

**ZALAINJATETXEA**

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



**KATTU**

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**



**MANOLO  
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - **BERA**

## Mendaurreko marka hiru korrikalarik hobetu zuten

Joxe Mari Mikelarena, Jorge Orbegozo eta Maika Ariztegik egin zuten proba

MIRARI eta MARTA

Oroituko zarete, seguruenik, duela hilabete batzuk Tomas Telletxeak Mendaurreko bere marka hausten zuenari trofeo eta saria eskeini zituela. Hala bada, abenduaren 20ean hiru korrikalarik Tomasen marka hautsi egin zuten honako denbora hauek lortuz: Iturengo Joxe Mari Mikelarenak igoera 37' 22"tan eta jeitsiera 17' 58"tan, guztira 55' 20" (Gainsenberrekobordatik Mendaurrera joan etorria); Doneztebeko Jorge Orbegozik igoera 42' 23"tan eta jeitsiera 20' 02"tan, guztira 62' 25". Iturengo Maika Ariztegik igoera 45'tan,



Joxe M. Mikelarena, iturendarrak ia 10 minututan hobetu zuten Tomasen marka.

jeitsiera 18' 40"tan, guztira 63' 40". Testigo lanak, Bordatik abiatzean Tomas Telletxea berak eta Mendaurrean Joxe Miguel eta Rafael Errandonea anaiak. Aipatu behar da Tomasek 1991ko martxoaren 2an egindako marka 43'05"

igoera eta 21' 55" jeitsiera, guztira 65'. Tomasek zorianak eman zizkion hirueri.

☐ **Zahar Txokoak** urteroko asanblada orokorra izanen du otsailaren 14ean. Ietan urteko kontuak ematea, etabar... 2etan berriz,

bazkaria Peñagarikano eta Egaña bertsolariekin.

☐ **Badirudi** jendea frontoia bukatzeko irrikiz zegoela, geroztik ez baita libre ikusten. Bai zahar bai gazte izugarri aprobetxatzen ari dira. Espero dugu geroan ere honela segitzea.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



ATERPE  
**jateia**

Tfnoa.: 63 41 79  
ARANTZA

SAROB  
okindegia 

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTU DA  
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO  
titi-tapa ERABILIZ GERO**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO  
BIDAIAK**

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

✗ HERRIAK  
✗ MENDIAK  
✗ TURISMOA  
✗ TREKING eta  
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANÑA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRULN



**DONAMARIA**

**Iguringo Fulgentzia Irazokik 90 urte bete zituen**

Erlajazio ikastarokoak, bertzalde, berriz ere martxan ditugu

PELLO ETXEGIA

Hilbeltzaren 16ean Igurin auzoko Fulgentzia Irazokik 90 urte bete zituen, nahiz eta karnetan bi urte gehiago dituela erran. Urtebetetze hau ospatzeko Donamariko ostatuan 40 lagun elkartu ziren, seme, iloba, anai eta gainerako guzien artean bazkari ederra egiteko asmoz.

Bazkaria akitzerakoan lore erramoa eta plaka bat eraman zizkieten bi iloba ttikienak. Momentu horretan senide gehienak negarrari eman zioten, Fulgentzia amaxiak ezik.



Fulgentziak bere senideekin ospatu zuen 90garren urtebetetzea

Ezagutzen dutenek emakume zintzo eta ausarta dela diote. Aunitz urtez eta ongi izan.

ETBkoak Donamariko meza grabatzera etorri beharrak zirela aipatu genuen. Donamaria, Oitz

eta Urrotzeko elizen artean haundixkoena zela eta hiru herrietako jendea hemen biltzea erabaki zen. Hiru astez jende dexente aritu da kanta berriak ikasten eta bertara joan edo telebistaz ikusi dituztenek poliki egin dutela erran dute.

Erlajazio ikastarokoak, atsedeen ttiki baten ondoren berriz martxan ditugu. Bi talde egin dituzte, asteartetan 8etan eta ortzegunetan 9etan. Masaje ikastaro bat ere eman nahi dute, taldea osatuz gero. Interesatuak deitu 450708 edo 450925 telefonotara.

**LEGASA**

**Kontzejuak urteko kontuak onartu zituen**

DAVID MARTIRENA

1992ko herriko kontuak onartzea erabaki zuen kontzejuak azaroaren 20an egindako sesioan. Kontzeju bilera berean, bertzalde, Lesakako Udalak bidali-tako idatziari erantzunez, ETBri behar diren gestio eta konponketak burutzea

eskatu zitzaion, zona osoan ETBko bi kateak ongi ikusteko.

**Bi pista**

Suteak geldiarazteko, bi pista 'cortafuegos' egiteko laguntza eskatu zaio Diputazioari; bata Zeberiko errekaldean eta bertzea Illerriraino joanen zena.



ETBko bi kateak hobeki ikusteko eskaria luzatu zuen kontzejuak

**EUSKARA**

Matrikula epea: Otsailaren 4a arte

Informa zaitez: 451555 tfnoan

Malerrekako Euskaltegia IKA



ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan

ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE



## Asteburu honetan ñauteriak

Larunbat gauean, Urriztibil baserri errearen aldeko gau-pasa egingen da

IOSUNE eta IXABEL

Urriztibil baserri errearen aldeko gaupasa egingen da Ñaute larunbatean arratseko 12etan frontoian. Basajaun taldea arituko da eta sarreratxo bat izanen da, noski. Bertzenaz, 29an baserrian egingen da eskea eta larunbatean herrian.

Igandean karroza desfilea 12etan, eta frontoian proba konbinatua emakumeak gizonen aurka. Zerri eta bildots zozketa, bazkaria Ulibeltzan eta ondoren dantza Amalur taldearekin.

□ **Ulibeltzak** elkartetik 25.000 pzta. eraman zuten lapurrek. Halere, okerragoa da orain ateak eta leihoak konpontzen egin beharreko gastua.

□ **Urtarrilaren 9an Paleta Txapelketaren** finalak jokatu ziren. Lesakako Maritxalar eta Sunbillako Ibarra, Pierda eta Larralde baztandarren aurka. Lehenak garaile 35-34. Hirugarren postuan Elizalde-Estanga eratsundarrak gelditu ziren, Jaen eta Melo baztandarrei irabaziz.



laz 12-15 karrozak parte hartu zuten desfilean eta karrozez gain, hainbat eta hainbat kuadrilla ere mozorrotzen da. Ñauteriak sekulako indarra dute Sunbillan.

ZALDUA

## ERATSUN

## Hiru erregeak opariak banatu zituzten

L.M. RETEGI

Oso Eguberri animatuak izan ditugu eta errege bezpera oso polita beneratzen. Lehen etortzen ez ziren bezela, aurtan hemen bait genituen hiru erregeak beren zaldietan. Herri guziaz beraien bila joan zen plazara, San Jose eta Maria elizan denak joateko zain zeuden bitartean.

Melchor, Gaspar eta Baltasarrek umeek eskatutako erregalo guztiak ekarri zituzten eta hauen poza izugarria izan zen. Argazkian ez da ikusten, baina karrozak ere oso politak zituzten eta gusto haundiz eginak.

Ea ba urtero horrela pasatzen diren Eguberriak Eratsunen



Aurtengoan karroza eta guzti etorri ziren erregeak eta elizan banatu zituzten erregalcak neska-mutikoen artean.



**SANTAMARIA**

**Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**ARROPA ETA OPARIDENDA**

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9

DONEZTEBE

**DONEZTEBE**

**Seguritate Sozialaren Atentzio eta Informazio Zentrua**

Donezteben zabalduko da eta inguruko 25 herri atendituko ditu

TXEMA ALDABE

Seguritate Sozialari buruzko informazioa emateko bulego bat irekiko da urte ondarrerako Herriko Etxe zaharreko lehen pisuan eta horretarako, alkatuek aipatu digunez, gestioak bizkortzen saiatzen ari dira eta arkitektoa hasia da proiektua egiten.

Seguritate Sozialeko arduradunek txosten edo informe baikorra egin dute Donezteberi buruz (INE-Meko bulegoa, zerbitzuak, bankoak, eskola, etab... kontutan hartuz) eta ondorioz Madriletik baiezkoa eman dute.

Bulegoan bostz funtzionario egonen dire la-

*Herriko Etxe zaharreko lehen pisuan egonen da zerbitzuaren egoitza.*  
Artxibo argazkia



nean, inguruko 25 herriak atenditzeko, (28.000 pertsona inguru), hauetatik 4.500 jubilatu eta pentsionistak izanik. Urtean 15.000 pertsoneri atendituko zaiela uste da, egunean 65-70, banaz bertze.

Orain arte Iruña eta Madriletik gestionatzen ziren 3.500 milioi pezetak, bulego honetatik partituko dira aurrerantzean.

Lokalak egokitzea, bertzalde, 35-40 milioi pezeta inguru kostako da.

**ttipi-flash**

**Erreka** taldearen zari ederra sortzez zubietarra den Goizuetako M<sup>o</sup> Virtudes Santesteban andreaki tokatu zaio.

**Arraindegi** berria ireki da Saldias harategia zegoen lekuan. Biak ere karrika nagusian daude orain.

**Apeztegia** Berri denda ireki berri da eskola aintzinean. Lehen Jose Arotxa izeneko aroztegia hona pasatuko da.

**Nafarroako** Caja Ruralek bulego berriak irekiko ditu 3 hilabete barruan elizaren parean dauden etxearen behekoaldean, Parrokia 5.enean.

Onai pasatu Inauteriak Onai pasatu Inauteriak Onai pasatu Inauteriak

**ERRANDONEA OSTATUA**

*Ongi pasatu Inotik!*

Tfnoa: 45 02 16 • ZUBIETA

**LABAIENGO OSTATUA**

**Pentsio osoa**

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN

AVRTIZKO  
OSTATVA



JATETXEA  
\* OSTATVA \*  
TABERNA

☎ 948.450477  
ITVREN • NAFARROA

**TXOKO erretegia**

**Bazkari, afari eta gosariak**

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



*Mozzorrerik egiteko  
astitik ez duzula?  
Guk eginen dizugu*  
San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE



OTORDUAK • LOGELAK  
Tfnoa: 450793

## Iñauteriak hilaren 30etik 3ra eta kontuen eguna 6ean



1953ko Iñauteri eguna. Lagun guttiren besta (eta gizonetzkoena) zela ikus daiteke. Jende zaharrak dioenez 4 ioaldun (gehienez 6) ibiltzen ziren. Mozorroak eta akordeolariak ezin bertzeakoak ziren

MAISTEMATEA etxeokak utzitako argazkia

IBAN ISASI

28an hilko dute aretzea iturendarrek. Egun hone-tatik aintzina etxeetatik

lortuko diren arraultze eta bertze jakiekin hornituko dira. Iñauteriak berez, 30ean hasiko dira. Astele-



Argazki hau aunitzez berriagoa da, Iturengo herriko plazan duela hamabortz bat urte ateria. Bakarren bat ezagutuko duzue seguraski ongi begiratu gero

JABIER BERAUK utzitako argazkia

henean, Zubieta eta Aurtiztik Iturenera etorriko dira, ohi denez eta astear-tean, Ituren eta Aurtizta-

rrak Zubietara joanen dira bisita bueltatuz. Larunba-tean, kontuen edo zaharren eguna ospatuko da.

## ZUBIETA

## Iñotiak eta gauza berriak antolatze bilerak egin dira

JUAINAS

Oraingo txanda, gaz-teena dirudi! San Anton bezperan eta egunean bertan bildu bait ziren.


Larunbata 16an bildu zirenak, herrian eta urtean zehar gauza berriak antolatze asmoarekin egin zuten. Hainbat ideiak eta asmo agertu ziren urtea motza egiten zaigula, gauzatzuz gero. Igandekoa berri-iz, Iñotik prestatzeko zen: dirua, sukaldaririk, gogoak ez, horiek ez bait dute organizatu beharrik! Txabolakoek euren rifa plazaratu dute, eta haurrak monta-

jearen espero dira, hori bait dute seinalea.

Kejak ere, badira, errege bezperan ioare gutti aditu zirela eta... garai batean ez omen zen besterik entzuten gau osoan! gaurko gazteak! Gaurkoak hor barna ziren, Valladoliden edo estalpean, majo afaltzen, afari hagitz luzean. 9etan eseri eta goizaldeko 4etan jeiki bait ziren... Aurtiz Iturengokoek etorri zirenean ez omen zuten harrera onik topatu... barka dezatela eta iñotitan frogatuko diegu lagun onak garelara.

Otsailaren 14an, Donezteben, 12,30etan Patxi Mindegiak eta Olagueko Antonio Senosianek bakoitzak 16 kanaerdiko lana izanen dute

Olagueko aizkolaria 91. urtean Nafarroako 2. mailako aizkolaria txapelduna dugu. Zubietakoa, berri-iz, 91 eta 92an Nafarroako eta Euskadiko kintopeko txapelduna. Aukera polita!





GOIZUETA

**Eskolako frontoiaren erabilera arautu egin da**

Klaserik ez dagoen egunetan, goizeko 9etatik gaueko 10ak arte jokatu daiteke bertan

ESTEBAN AROZENA

Eskola orduez kanpora pilota plaza "berriaren" erabilerako nolabaiteko araudia kaleratu du Udalak, Andres Narbarte "Xalto" eskolako kontserjea arduratu delarik hori betetzeaz.

Eskola egunetan, arratsaldeko 5etatik gaueko 10ak arte erabili daiteke frontoia. Klaserik ez dagoenean aldiz, aldaketa bat dauka ordutegiak, hau da, goizeko 9etatik gaueko 10ak arte. Aipagarria da, igande eta jai egunetan argiaren zerbitzurik ez dela eskeinitiko, eta gainerako egunetan 600 pezeta ordaindu behar-



Argiak pizten badira orduko 600 pezeta ordaindu beharko dira

ARTXIBOA

ko dela ordu bakoitzeko argiak pizten badira, noski.

Nolabait mota bereko gaiarekin jarraituz esan, zabortegi berriaren lanetarako

erositako makina herritarren zerbitzuan erabiltzeko asmoa omen duela Udalak.

Horren arabera, erortzaren bat dela medio edo base-

rritarren bati bere etxeko bidea itxiko balitzako eskabadoraren zerbitzua dohai-nik eskeinitiko da, baserri horretan inor biziko balitz behintzat. Gainontzeko kasuetan, orduko 3.500 pezeta-tan jarri da makinaren prezioa.

□ Goizuetako mendizaleak antolatuta, Igantzira mendi irteera egingo da igande honetan, hilaren 31an. Goizeko 8,30etan plazatik atera eta Igantzitik buelta arratsaldeko 6etan autobusaz. Bazkaria Igantziko elkartearen eman behar da 1.500 pezeta-tan.

ARESO

**Errege egunak iñauteriei pasa die txanda**

JUANA MARI SAIZAR

Iñauteriak 5, 6 eta 7an ospatuko direnez, umeak ari dira dagoeneko mozzorroak prestatzen. Ikusi behar helduok ere animatzen garen eta iaz baino mozzorro gehiago ateratzen ditugun denon artean iñauteri alaiagoak ospatzeko.

**Errege bereziak**

Oso modu berezian ospatzen dugu Errege eguna Areson, batez ere umeak. Erregeak etxetara sartzen dira eta umeen eskuetan jartzen dituzte opariak. Ohitu-



Giroa alaitzeko, aurten erregeak soinu-jole eta guzi ibili ziren

ra duela urte asko hasi zen; aspaldian errege bakarra ailegatzen zen eta berekin batera 'paje' gisa gizon bat

kinkea eskuetan zuela. Azken urteotan arrats partean etxafuegoekin batera ailegatzen dira, orain hiruak,

eta jendeak laguntzen die etxez etxe koloretako kandela, zintzarri eta karrakekin.

## Leitzarrak txapelkun Baztango pilota txapelketan

Aldaia-Barriola eta Buldain-Mariñelarena bikoteak, hain zuzen

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 6an Iruritan ospatu zen Baztango finalean Leitzako bi pilotari bikotek jokatu zuten eta biak ere txapelkun atera ziren. Igor Aldaia eta Abel Barriolak infantiletan 18-7 irabazi zuten Agesta-Errandonea aranztarren aurka eta Jesus M<sup>a</sup> Buldain eta Antonio Mariñelarenak jubenetan 22-13 Zabaleta-Esain Bur-latarren aurka.

### Truke txapelketa

Datorren iganderarte da, laister jokatuko den Truke txapelketan parte hartzeko izena emateko epea. Txapelketa Aurreran jokatuko da larunbatetan arratsaldez. Bikote bakoitzak lau mila pezeta ordaindu beharko dizkio Peru edo Etxeberi izena ematerakoan. Txapelketa bukatutakoan, partaide guztiak afari bat izango dute Aurreran.



Urte batzutako ohitura badu Leiztan Neguko Futbol txapelketak. Argazkia, 1989an ateria da Elbarrengo futbol zelaian  
ARTXIBOA

### Neguko Futbol txapelketa

Larunbatetan hasiko dira jokatzen Neguko Futbol txapelketako lehendabiziko partiduak. Arratsaldez jokatuko dira ordutegi honekin: 3etan Xarrak K.E.-Kirtanak; 4etan No chingan Flores-Zingurutxo I; 5etan Juanthino 93- Metaziri eta 6etan Zingurutxo II-Putakumeak. Igandean berriz

beste hauek: 11tan Belarriko Zolda-Rossoneri eta 12etan Txikizion-Akerrak. Txapelketa eskolako futbol zelaian jokatuko da.

### DNI berritzea

Nortasun Agiri Nazionala Leiztan berritu nahi baduzu, egun hauetan egin dezakezu, alde zuzenetik Iruñean ordua eskatuta: otsailaren 12an, martxoaren 12an, apirilaren 23an, maiatzen 14ean, ekainaren 11an, irailaren 10ean, urriaren 15ean eta azaroaren 12an.

tzaren 14ean, ekainaren 11an, irailaren 10ean, urriaren 15ean eta azaroaren 12an.

### Anbulantzi berria

Udalak, Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarekin, hiru miloi inguru balio dituen ambulanti berri bat erosi behar du herriko hamabi boluntarioek eskeintzen diguten zerbitzurako.

### SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak  
Tfnoa: 610637 - LEITZA

### ASTIZ LIBURUDENDA

Liburuak, opariak eta jostailuak  
Tfnoa: 510405 - LEITZA

### ETXE-TRESNAK

### MOBLEAK

HIFI-TELEBISTA-ARGINDAR INDUSTRIALA  
ANTENA PARABOLIKOAK

tfnoak: 510181-510208

LEITZA

### ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA



BAZTAN

# Laguntza ofizialeko 48 etxebizitza eraikitzeko akordioa

Zazpi kontzejalek alde botatu zuten (EA, HB eta PSN-PSOE), UBko seiak kontra

JOSEBA IGARABIDE

Baztango Udalak 'Ciauriz-Ballarena' promotorarekin Elizondoko Laguntza Ofizialeko 48 etxebizitza eraikitzeko komenioa izenpetzea erabaki zuen urtarilaren 8an egindako aparteko udal-batzarrean.

**Lehentasuna dutenak**

Komenio horren arabera, 48


etxebizitza eraikiko dira Elizondoko lehen fase honetan, eta etxebizitzak eskuratu ahal izateko, ahalmen ekonomiko bajeenetakoek eta Baztangoak direnak 'lehentasuna' izanen dute erosterakoan.

**Etxebizitza, aparkalekua eta trasteroa**

Etxebizitza erekin batera, erosleak,

lur azpian eginen den apartekatzeko plaza eta trasteroa ere izanen ditu. Guziaren prezioa, Nafarroa mailan Laguntza Ofizialeko etxebizitzentzat 1992an zegoen normatibaren arabera izanen da. Modu berean, bajera komertzialak erosteko aukera etxebizitzaren erosleei eskeini zaizkie lehenik. Segidan, Lino Plaza ar-

*Patxi Oiartzabal: "Komenioa eta puntuazio baremoaren onartzearekin, Baztanen lehen aldiz Baldintza Berezieta etxebizitzak eraiki ahal izateko pausorik zailena eman da oraintxe".*



kitektoak egindako urbanizazio proiektua aztertua izan zen. Kasu honetan, komenioarekin bezala, kontzejal guziak bat etorri ziren onespina ematerakoan, UBko kontzejalak izan ezik.

UBko Pedrosak dioenez, komenioaren kontra daude "promotoreen interesak balizko erosleen interesen aintzinetik jartzendirelako" eta urbanizazio proiektuari dagokionez, "azaletik begiratuta ere, Norma Subsidiarioen kontrako hutsegite larri bat antzeman daitekelako".

**W ttipi-flash**

□ **Iñauteri** giroan segitzen dugu Baztanaldean. Oilar-dantza, egun ttuntun, ortzegun gizen eta gainerako egunen zain daude gaztetxoek orain.

□ **Elizondoko** igerileku eta aldagelen moldaketarako 2 milioi pezetatiko dirulaguntza luzatu du Nafarroako Gobernua.

□ **Elizondoko** alkatea aukeratzeko hauteskundeak urtarilaren 24ean errepikatu ziren Administrazio Lokaleko horrela aginduta.

**San Anton eguneko errifa**

Errifaren sari nagusia Urdazubi aldera joan zen. Altzualdebereko Pedro Jose Tomasenaren 9.988 zenbakiari tokatu zaio erresidentziak zozkatutako esnebehia, Elizondoko Andres Baylonen saldua.

Bigarren saria, zerria, Irurritako Felipe Arretxeari tokatu zitzaion, 6.012 zenbakia, Elizondoko 'Labaien' ostatuan erositakoa.

Hirugarren eta laugarren sariak, bi bildots eta urdaiazpikoa, 15.537 eta 12.318 zenbakien jabeegi egokitu zaie. Hau idazterakoan jabeak nor diren ez da ezagutzen, dena dela jakina da lehena Batita Adinek saldua dela eta bigarrena Irurritako harategi batean.

**Laguntzarik ez**

Nafarroako gobernua ez du lagunduko Balleko Etxeak egindako zenbait proiektu. Zehazki errateko udal camping bat, Erratzu, Arraioz, Otxondo eta Iturri-Ederran errekreoguneak eta turistendako liburuxkak berri egiteko eskariak luzatuak zituen Udalak.

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIAK**  
arropa eta teletan

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

# Herri Kirol Taldeko neska mutilak Euskadiko Txapelketan

Bertzalde, iñauteriak hasiak ditugu iada

PABLO MENDIBURU

Basaburuko herri kiroleko partaideak Euskadiko Txapelketa jokatzeko ari dira. Mutilek Lesakako batzurekin batera, 'Bidasoak' taldea plazaratu dute, eta neskek, 'Basaberri' izenarekin atera dira Berriozarreko kirolariek batera.

Ligilla moduan jokatzeko ari den txapelketa honetan goikaldeko postuetan ez egon arren, hor dabilta hemengo taldeak Euskadiko talde indartsuenen aurka jokatzeko.

## Iñauteriak

Aniztar eta Berroetarrek elkarrekin ospatu zituzten pasa den asteburuan. Almandozen eta Zigan, berriz,



India hauek agertu ziren iazko Iñauterian Almandozen

ARTXIBOA

bikotek, Esteban Otxandorena eta Juanjo Atxa izan ziren garaile.

Bertzalde, Basaburuko Kirol Elkarteak antolaturik pala txapelketa hastear dagoela ere erran behar da.

## Uraren

### klorzioa...

dela eta, Berroeta eta Zigako alkateek kekek jaso dituzte Iruñetik. Aipatu behar hemengo urdepositoen instalakuntzak txarrak direla eta

otsailaren 12, 13 eta 14ean ospatuko dira. Urteroko giro ona izanen da dudarik gabe.

## Mus Txapelketak

Aniz eta Berroetan urtarilaren 16an hasitako mus

txapelketan 24 bikotek parte hartzen dute. Asteburuan jokatzeko da eta finala martxoaren 19an egingen da.

Almandozen, Benito ostatuan antolatutakoan, 22

klorzio ona egitea arrotz zaila izaten dela, horretarako ia egunero kontrolatu behar izaten baita. Udalak instalazioak hobetzea izanen da soluzioa.

## OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI



FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN  
ZUZENENKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea  
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karretek ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Mugen desagertzea ospatu zuten Dantxarinean

Hilaren 16ean, Nafarroa, Euskadiko Autonomi Elkarte eta Aquitaniako lehendakariak

ALIZIA OLAIZOLA

Juan Cruz Alli, Jose Antonio Ardanza eta Jacques Valade lehendakariak Dantxarinearara hurbildu ziren hilaren 16ean, mugen desagertzea ospatzeko. Berarekin batera, Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan eta inguruko bertze zenbait herrietako alkate eta kontzejalak egon ziren bertan. Diskurtsoak bota (bakoitzak hizkuntza batean) eta «Ainhoako deklarazioa» sinatu ondoren Menta jatetxean bazkaldu zuten.

Lehendakariak, hiru herrialdeak mugen gainera elkartzeko gogoaz azaldu zuten.



Dantza ikuskizuna eskeini zitzaion Dantxarinearara bildutako jendeari mugan bertan

Mus txapelketa hasi da Indiano-Baitan

Hogeitabi bikote dira Indiano-Baitan mus txapelketan jokatzeko izena eman dutenak hiru kategoritan

banatuta. Muspartidak egun gehienetan izaten dire arratsetan.

San Anton eguna

Urtarrilaren 17an San Anton egunean, goizeko

11etan meza nagusia izan zen eta gero, ohidura den bezala, bazkaria Indiano-Baitan, nekazari andana bat bilduz.

**ERRATZU OKINDEGIA**


zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU



**ARMUA Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI



Santiago 71, ☎ 580166 - ELIZONDO

**NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA**

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE



«ZALDUBI»  
SUKALDE  
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62  
IRURITA - BAZTAN

**ALBATARITZA S.A.**

Aita Donostia 7

Tfnoa: 452111 - Faxes: 580980

**ELIZONDO**

## Bertsularien eguna burutuko da otsailaren 14ean

Ihauteriak, bertzalde, otsailaren 20 eta 21ean ospatuko dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Azken hamarkada hunko ohidurari jarraikiz Olhain elkarteak Bertsu saioa antolatzen du heldu den otsailaren 14ean. Aurten saioa berezia izanen da; Laka eta Etxegoin bertsulariek bertsu zaharrak kantatuko dituzte, dudarik gabe biziki aberatsak eta berriro abestuak izaita merezi dutenak. Bertze bertsulariak hauek izanen dira: Xanpun, Ezponda, Alkat, Arzallus, Nagore Fernandez eta gure auzoan daudenak, Bittor Elizagoien eta Estitxu Arozena. Daniel Landart izanen da gai emalea. Ez ahantz beraz Olhain elkarteak elkarteak eskaintzen daukun



*Iñauteritan parte hartu nahi dutenak  
Gaztetxeko arduradunekin harremanetan sartu behar dute  
ARTXIBOA*

hitz ordua, Omordian otsailaren 14ean: bertsularitzak badauka gure sustengua beharra Iparraldean.

**Egitaraua** 10,30etan meza nagusia bertsulariekin elizan.

11,30etan aperitifa Herriko Etxeko edantegian.

Oren batean bazkaria Omordian (deitu lehenbait-lehen lekuen atxikitze 595420 47 telefonorat).

Arratsaldeko 4etan bertsu saioa Omordian arestian aipatutako bertsulariekin (sarrera 30 libera edo 600 pezeta izanen da).

### Ihauteriak

Abisu gisara, ez ahantz aurtengo Ihauteria heldu den otsailaren 20 eta 21ean ospatuko dela.

Parte hartu nahi dutenak Gaztetxeko arduradunekin harremanetan sartu behar dute.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono honara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

### HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

*Michel eta Kaitin  
Guendacain*

Tfnoa: 59 54 25 19  
64310 SARA



### ARGINTZA - ETXEGINTZA

**SARL ARGIN**

Pedro AMORENA

"Hemen Ongi" - 64310 SARA

Tel: 59.54.27.77

LAISTER IKUSI eta IRAKURRIKO DUZU

**ttipi-ttapa 92 URTEKARIA**

1.000 pezetatan izanen duzu salgai ohizko lekuetan



## EZKONTZAK

**Felix Mendikoa Etxenike** eta **Juana M<sup>a</sup> Etxegarai Mendikoa**, Iruritakoak, urtarrilaren 8an.

**Luis Otermin Fagoaga** eta **M<sup>a</sup> Teresa Motos Izeta**, Irurita eta Donostiakoa, abenduaren 19an.

## JAIOTZAK

**Eneko Jaunsaras Migeltorena**, Almandozkoa, urtarrilaren 3an.

**Andrea Karrikaburu Ripa**, Iruritakoa, urtarrilaren 8an.

**Josu Inda Irigoien**, Doneztebekoa, urtarrilaren 7an.

**Josu Telletxea Garmendia**, Donamariakoa, urtarrilaren 13an.

**Jaime Mindegia Otxandorena**, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 12an.

**Iker Altzugarai Zubiri**, Lesakakoa, urtarrilaren 15ean.

**Maddi Taberna Etxeberria**, Lesakakoa, urtarrilaren 8an.

**Andoni Zubiri Irigoien**, Lesakakoa, urtarrilaren 18an.

**Regina Muruamendiaraz Del Puerto**, Berakoa, urtarrilaren 4ean.

**Iker Rojo Txoperena**, Igantzikoa, urtarrilaren 9an.

## HERIOTZAK

**Juan Okiñena Gorostegi**, Elizondon, urtarrilaren 2an, 73 urte.

**Migel Azkarraga Ariztia**, Urdazubin, urtarrilaren 10ean, 63 urte.

**Concepcion Irigoien Inda**, Elizondon, urtarrilaren 10ean, 75 urte.

**Juana Rosario Goñi Desgrans**, Elbeten, urtarrilaren 10ean, 74 urte.

**Gaudencia Labalde Etxegoien**, Elizondon, urtarrilaren 13an, 74 urte.

**Benito Iriarte Domec**, Elizondon, urtarrilaren 15ean, 78 urte.

**Martina Urrutia Irisarri**, Elizondon, urtarrilaren 15ean, 83 urte.

**Francisca Telletxea Elizalde**, NARBARTEN, urtarrilaren 5ean, 90 urte.

**Elena Etxeberria Elizondo**, Beintza-Labaienen, urtarrilaren 9an, 86 urte.

**Juan Jose Etxegarai Zozaia**, Lesakan, urtarrilaren 11an, 90 urte.

**Celestina Bertiz Albiasu**, Lesakan, urtarrilaren 15ean, 59 urte.

**Francisco Soria Ariztegi**, Beran, abenduaren 27an, 61 urte.

**Donato Urtxegi Iraola**, Beran, urtarrilaren 5ean, 79 urte.

**Miguel Azkarraga Ariztia**, Urdazubin, urtarrilaren 10ean, 63 urte.



**Era guztietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

**M<sup>a</sup> Dolores Mirana**

TOPOGRAFOA

**NEURKETAK • PLANOAK**



Lur neurketak  
Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. • ☎ 580143 • ELIZONDO



**T. BERABI, S. L.**

**SALMENTA, MEKANIKA  
eta ARREGLO GUZTIAK**

Zalaingo Pol Ind. - Tfnoa 631445

**BERA**



## Berako IV. Mendi Bizikleta Bilkura


*Urtarrilaren 31an ospatuko da eta bi ibilbide izanen ditu*

Goizeko 9,30etan emanen zaio hasiera ibilbide ezberdinetan parte hartuko duten txirrindulariei. 'A' ibilbideak 28 kilometro izanen ditu guzira eta iazko lasterketan, errate baterako, zirkuito hau aukeratu zuten parte hartzera animatu ziren gehienak. 'B' ibilbideari dagokionez, 12,4 kilometrotako luzera izanen du.

Dena dela, joan den urteko edizioak orainarteko

marka guziak gainditu egin zituen. Guzira 331 txirrindularik hartu zuten parte bi ibilbideen artean, horietatik gehienak, %65a gipuzkoarrak zirelarik.


Ikusi behar zenbat jende animatuko den aurtengo edizioan parte hartzera. Nolanahi norbait apuntatzeko asmotan baldin bada, 500 pzta. balio du izenemateak eta Gure Txokoako tfnoa. 630314a da.



### Zubieta - Aranibar pilotari beratarrak garaile Irunen

Zubieta eta Aranibar Berako pilotari benjaminak txapeldun suertatu ziren Irunen ospatutako Joxe Lopetegi txapelketan, finalean Baztango Jaurena eta Rementeriarri 16 eta 7 irabazi ondoren.

Bidasoa aldeko hainbat pilotarik parte hartzen duten txapelketa honetan maila polita erakutsi du Berako bikote honek eta Zubietari pilotari onenaren saria eman diote gainera.



Gure Txokoa elkarteak dugu IV. Mendi Bizikleta Bilkuraren antolatzailea

## Eskubaloian ere bikain

*Baztango emakumezkoak ongi ari dira ligan*



Argazkian ageri zaigun Baztango emakumezkoen eskubaloi taldea liga bikaina egiten ari da.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Beti Gazte-Gure Txokoa** partiduko kiroltasuna. Bai bi ekipotako futbolarien aldetik eta baita Lesakako Kristo-Enean bildu zen jendetzaren aldetik kiroltasun haundia izan zen, norberaren taldea animatuz, noski. Bikain.

**Juantxo Sein** Igantziko mendi txirrindularia. Istripu larria izan zuen Agiña inguruan, mendi bizikletan San Antonera zihoala., belauneko ligamentoak puskatuz eta eskumuturrean mina hartuz. Abudo senda dadila.

## 700 lanpostutik goiti galdu dira hamar urteotan eskualdeko lau lantegi haundienetan

*Aldi bateko lan kontratuak nabarmenki igo dira epe honetan*

*Gaurko lan munduaren egituraketa eta aintzina begira izan dezakeen eboluzioa ulertzeko, historian zehar izan duen aldaketa, azaletik berterik ez bada ere, azaltzea behar beharrezkoa iduritzen zaigu.*

*Atzera gehiegi itzuli gabe, gerra iragan eta dextente urte geroago arte, gure herrietako populazioaren gehien-goak nekazaritzan egiten zuen lan. (Gerra ondoko urte gogor haietan baserritarra izatea pribilegioa zen, hirietan gose izugarria baitzegoen).*



Lantegi erraldioen garaia historiara pasatu dela erran daiteke

**H**irurogeigarren hamarkadaren hasieran, eskualdean industrigintzak ikaragarriko hazkundera izan zuen. Hori dela eta, ekonomiaren egituraketa aldatzen joan zen. Iada ez zen nekazaritza eskulan gehien enplegatzen zuen sektorea, industrigintza baizik. Horrela, «fábrica ciudad» deituriko lantegi erraldoiak hedatzen joan ziren («Sarrio» eta Lesakako Laminategia). Langile au-

nitzen beharra zeukaten eta lortzeko zailtasunak zituztenez, beraien inguruan etxebizitzak langileei alokatzeko, jangelak, kooperatiba-dendak... eraiki zituzten langileak erakartzeko. Zegoen lan demanda hornitu ezin zenez, emigrante aunitz etorri zen gure eskualdera euren lurraldea utzita.

Hogei hamarren bat urte iragan direnean, 90. hamarkadan, bertze aldaketa baten aurrean aurkitzen gara. Ia aspalditxotik, industriak

ezin du dagoen lan demanda hornitu eta gainera aipatu ditugun lantegi erraldoi haiek gainbera hasiak dira. Leitzako Sarriok, adibidez, garairik onenean enplegatzen zituen langileen erdiak enplegatzen ditu eta Lesakako Laminategia ere bide beretik doa. Serbitzu sektorea deiturikoa hazten joan den arren, ez du nekazaritza eta industrian galtzen diren lanpostuak estaltzen. Lantegi erraldioen garaia (mila edo bi milakoena) historiara


pasatu dela erran daiteke.

### **Lantegien egoera**

Gure eskualdean sei lantegietik gora dituzten lantegiak 103 dira eta hauetatik ehun langile baino gehiago enplegatzen dituzten lantegietara murrizten bagara, lau bakarrik geratuko zaizkigu. Lesakako Laminategia, «Sarriopapel», «Alco» eta «Funvera».

Lantegiok gure eskualdean kokatuak egoteak ez du erran nahi bertan lanegiten duten langile guziak gure


## Langile kopuruaren eboluzioa (100 langiletik gorako lantegietan)



Lanpostuak guzira  
 Kontratu finkoak  
 Aldibateko kontrat.


**«Alco»k** azken zortzi urtetan langile kopurua mantentzea lortu ez ezik, zertxobait haztea ere lortu du, nahiz eta aldibateko kontratuak ezagutu duen hazkuntzadeari esker izan.

**«Funvera»ren** kasua bitxia da, zeren 86. urtetik 89ra bitartean ia % 33a hazi bazen, azken lau urtetan bertze horrenbertze jeitsi da. Lan erregulazio prozesu batetan sartuta dago gainera.




eskualdean bizi direnik. Aginte postuetan eta soldatarik haundienak dituzten gehienak inguruko hirietan bizi baitira.

Hau dela eta, bi ondorio bederen atera ditzakegu: Alde batetik, erabakiak hartzen dituzten pertsonen bizitza pribatua lantokitik



**«Sarriopapel»ek** lanpostu aunitz murriztu ditu, hiru langiletik bat galdu egin baitu azken hamabi urteotan. Egun, KIO taldearen afera dela eta, zalantza egoera batean murgilduta dago.

**Lesakako Laminategian** 1982tik 90ra bitartean 391 lanpostu galdu dira, % 19a. Bertze datu nabarmena zera da: 1982. urtean langile guztiak lan kontratu finkoa bazuten ere, 1990an 238 langilek aldibateko kontratua zutela, % 14a, hain zuzen ere.



urruti egiten dutela, presioa ekidinez eta anonimatoa gordez.

Bertzalde, herrietan es-trakto apaleko jendea bizi

dela, lantegietan agintea eta dirua kontrolatzen dutenak hirietara aldegiten dutelako.

PATXI LARRETxea




## Xabier Dutey-Harisper, «famosoen» medikuak Donezteben jarria du kontsulta gaur egun

*Quiropraktikan espezializaturik dago*

*Donibane Garazitik zortzi kilometrotara dagoen Lacarren sortu zen Xabier, bere osaba eta Napoleon III.aren mariskala izan zenaren gazteluan. 1964ean Estatu Batuetara joan zen ikasketak egitera, Iowa estatuan dagoen Palmer Unibertsitate-ra hain zuzen ere. 1972an ikasketak bukatu ondoren, lanean hasi zen Frantziako Pau-n. Bere mediku lagun batek eskeini zion Arabiako Khashoggi haundikiaren mediku izatea. Horrela, bere familiaren medikua izan zen 7 urtez eta ia mundu guzian barrena ibilia da.*

*Urte hauetan pertsona ospetsu gehiago atenditza ere tokatu zaio, Jordaniako Hussein, Zaireko Mobutu, Elisabet Taylor, Lizza Minneli, Severiano Ballesteros...*



Xabier Harispe, eskuinaldean dagoena da. Ezkerrean dagoena Jaime de Mora y Aragon ospetsua.

Xabier bi seme alaben aita dugu, bata 24 urtetakoa eta bertzea 15ekoa, eta antza denez, harat honatean ibili beharrak familia arazoak sortu dizkio. "Seme-alabek aita ondoan behar dute eduki" dio Xabierrek. Hori dela eta, 1988an Mia-

rritzen kontsulta ireki eta bertara bizitzera etortzea erabaki zuen. Handik denbora guttira zerataz konturatu zen: Miarritzeko kontsultara joaten zen jendearen ia erdia naparra zela. Horien bitartez Donezteben kontsulta irekitzea erabaki

zuen. "Leku polita izateaz gain geografikoki ongi kokatua baitago".

Mintzaiteran, frantsesa eta ingelesa ongi menderatzen ditu eta nahiko ongi defenditzen da euskara, espainola eta alemanieraz.





Ezkerretetik eskuinera Khashoggi, bere emaztea den Shaparrri eta Xabier Dutey-Harispe



Goiko argazkian Xabier eta Von Bismarck.



Eskuinaldeko argazkian Liz Taylor, Xabier eta Georges Hamilton.

**X. HARISPE.**— Gehiengotan lunbagoa, ziatika, bizkar hezurreko mina eta antze-koak izaten ditu normalean. Halabaina, bigarren edo hirugarren kontsulta egin ondok jendearen osasuna hobetuz joaten da; janariak hobeki digeritzen ditu, loa normaltzen zaio, buruko-mina desagertu, mareoak baita... Horrela, jendeak bertze arazoak ere badituela ikusten da eta hauek ere orno edo bertebra manipulazioen bitartez aztertzen ditugu. Ez dira masajeak, manipulazio zehatz batzuk baizik, inongo minarik gabe. Hortaz gainera Pilota Eskoletako haur pilo bat ere joaten zaizkit kontsultara eskuetako problemak sendatzera. Ni neu pilotazale amorratua naiz. Estatu Batuetara joan baino lehen Donibane Garaziko 'Goizeko Izarra' pilotalekuan jokatzenuen eta orain hemen nagoenez, prest nago hemengo pilota eskolako gaztetxoei eskuetan, bizkar hezurra edo artikulazioetan dituzten arazoak debaldeko kontsultan atenditzera. Dena dela gustatuko litzaidake honetaz Pilota Eskolako arduradunekin solastea.

**ttipi-ttapa.**— *Ze egunetan lan egiten duzu hemen?*

**X. HARISPE.**— Asteazken eta ortzegunero goizeko 9etatik letara eta arratsaldetan 3etatik aintzinerara. Nerekin arituko den Bouchet medikuak atautxi Elizondokoa zuen eta amatxi Donostiarra.

TXEMA ALDABE

**ttipi-ttapa.**— *Zein da zure espezialitatea?*

**X. HARISPE.**— Quiropraktikan espezializatua naiz. Quiropraktika bizkar hezurreko arazoetat arduratzen da gehienbatean, eta baita juntura edo artikulazioetat. Gorputzaren nerbio

guziak bizkarreko hezurretatik ateratzen dira... bihotzera, biriketara, hertzeetara... gorputzaren atal guzietara azken finean. Horrela bada, nerbioek bixitasun aski ez badute, bizkar hezurra aztertzen dugu eskuekin ukituz eta hezurren

bat oker badago bere lekuan jartzen dugu. Sendatzeko modu naturala da hau, eta pazienteen arabera landare naturalekin egindako produktuak errezetatzen ditugu.

**ttipi-ttapa.**— *Kontsultara datorkizun jendeak zer izaten du normalean?*

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Bidasoa** edo Baztan aldean baserri baten bila gabilta, alkilerrean edo erosteko. ☎ 450454 (8etatik 3etara).

• **Iruritan** 142 m<sup>2</sup>tako pisua, kalefakzio, bi bainu eta ganbararekin salgai, farmaziaren gainean. ☎ 451518.

• **Baztanen** etxe edo baserria erosiko nuke. 20 milioi badituz. ☎ 451518.

• **Elizondon** pisua salgai, 5.600.000. ☎ 451518.

• **Narbarten** pisua garaje eta baratzarekin alokatzen dit. ☎ 451518.

• **Lesakan** 100m<sup>2</sup>kopisu amueblatua salgai. ☎ 637034 - 226747.

## Lana

• **Publizitate** eta arte enpresa batek komertziala behar du Nafarroarako. Interesatuak Curriculum Vitae eta argazkia bidali: Publiart, Alarde 3, I.A, 20300 Irun.

• **Neska** bat eskeintzen da zaharrak edo haurrak zaintzeko Lesaka inguruan

edo Irunen. Esperientzia asko badut. ☎ 627623.

• **Haurtzantza** edo Puerikultura titulua eta EGA duen neska batek Beran edo Lesakan haurrak zaintzen edo arratsaldetan Lesakan edo Igantzin 5-10 laguneko talde bati euskara klaseak ematen lan egingen luke. ☎ 637911. Edurne Goia.

## Salerosketak

• **Sukalde** mixtoa salgai, egoera eta modu onean. ☎ 510318.

• Hogeitabost **ardi** salgai. ☎ 514229.

• **Suzuki** Vitara JLX osoa salgai prezio interesgarrian. ☎ 637890.

• **Traktorea** 42 zaldikoa, kasik berria eta gutti ibilia salgai prezio onean. ☎ 453430 (ilunabarrean).

• **Kawasaki** KX 125 cross motoa salgai, gutti ibilia., 235.000 pztatan. (Pikabea). ☎ 450163.

• **Tapiz** edo alfonbra, saloirako egokia, salgai. ☎ 581023.

• Bederatzi **berogailu** edo erradiadore salgai. Propano eta su-egurrerako ba-

lio dute. ☎ 581212.

• **Virago** 535 motorra salgai. ☎ (943) 612886 (gaueko 10etatik 11etara).

• **R-5 GTL** kotxea NAM salgai, 70.000 pztatan. Leitza. ☎ 510320.

## Denetarik

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎ra.

• **Etxalarren** Azkua aldean ahari bat agertu da, lau marka eta joarea dituena. Jabeak dei dezala ☎ 635159ra (Joseangel Goienetxe).

• **Elizondon** tailerra izandako bajera alokatzen da. Tailerra, aroztegia edo mueble almazena egiteko prestatua. Informazioa Doneztebeko Ezkalo.

• **Akordeoi** eta **baju elektrikoko** klaseak ematen dituzte. Akordeoilari tituluduna naiz. ☎ 510192.

• **Ingeles** klaseak ematen dira. Merkeak, esperientziduna. ☎ 637095 (Mikel).

• **Lesakan** garaje bat alkatzen da Antoiu 39an. ☎ 585059.

• Emakumezkoen **erlujua** aurkitu da Lesakan. ☎ 637229.

## Harremanak

• **Urrozko** Antonia Arzuagari zorionak bere iloba, alaba eta suhiaren partetik.

• **Zorionak ttipi-ttapa** 100. alea zara dagoeneko eta. Horrela jarraitu dezazula luzaroz. Josune.

• **Leitzeko** Iñaki Alduntzineri: kontuz, azkarregi hazten ari zara eta. Zuk badakizu zeinen partez.

• **Ipar** Euskal Herriko adiskideoi; Eguberri jaietan zuengandik urrun egotera behartu naute, bainan halere nere pentsamenduetan oso hurbil edukiko zaituztet. Izan ongi eta urte berri on. Errota.

• **Ezkurrako** gazteen-tzat. Carnavala oso ongi pasatzea eskeintzen dizuegu bihotz bihotzetik. DT, EB.

• **Arizkungo** Romiri: zorionak eskolan ongi joateagatik. Ea nongo bestetan elkar ikusten garen. Sorgin baten partez.

• **Legasako** Unai E-ri: zorionak zure 16. urtebetetzean eta muxuak. Zure neska.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

.....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA ..... Tfnoa: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# DENBORAPASA



			Ahari kolpea	▼		Da, niri	▼		Arabeen azoka	▼		Koldarra
			Itxura ederrekoak			□			Barojaren etxea			
				▶			▼			▼		
			□		▶							
			Ordotsak									
				▶								
□	▼		Nor plurala	▶				Modua	▶			
Argigabe		Ipurtzuloa	Joaki naiz					Errekak				
					Edo	▶					Kontsonantea	▶
					Röntgen						Suge tzar	
Haurdun	▶					▼			Pare bat	▶	▼	
Erronkari-ko ibaia									Famatu			
					Basa animalia	▶				▼		▶
					Bokala							
Interjekzioa	▶		Andere zaharra	▶	▼							□
Behizain			Kantoi									
					Gipuzkeraz, zen	▶					Kontsonantea	▶
					Ero						Lakarra	▼
500	▶	Azkena birritan				▼		Karrika	▶			▼
Goi aldekoa		Lehor						Bokala				
									Atzikia	▶		
									Barazki mota			
□	(Errep.) Distira	▶						Auzo, hitz elkar.	▶	▼		
	Rutenioa							Euskal fonema				
											Zero	▶
											Mila	
												Kontsonantea
Itsasoko likidoa	▶				Kargak	▶				▼		

□ *ttipi-ttapa* eremuan, Lanbide Heziketa eta BBB nahiz UBIrako ikastetxeak dituzten herriak

*ttipi-ttaparen 92 urtekaria*  
**URTE OSOA LIBURU BATEAN BILDUA**

- ▶ Urteko berririk garrantzitsuenak herriz herri
- ▶ Elkarrizketak eta eritziak
- ▶ Erreportaiak
- ▶ Mahai-inguruak
- ▶ Eskualdeko kirolei errepasso zabala
- ▶ Telefono Agenda bete betea

*ttipi-ttaparen 92 urtekaria*  
 Herri guzietan salgai egonen da



**ALMACENES  
 ETXANIZ, S.A.**

Lesakako Iturria anaiak

**URTARRILANERE**

**ESKEINTZABEREZIAK**

Armairu lakatua  
 + lababoa + grifoa + ispilua  
 Guztia, 28.500 pztatan  
 BEZ barne

Juan Arana, 3

Tfnoa eta faxa: (943) 611767

**IRUN**

**ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:**

- |             |               |
|-------------|---------------|
| x MOBLEAK   | x AZULEJOAK   |
| x GRIFERIAK | x SANITARIOAK |
| x MANPARAK  | x OSAGARRIAK  |

*Prempuestoak  
 Konpromisorik  
 gabe*